HERNANIKO LIZEAGA AUZOKO UR HORNIDURA SAREA BERRITZEKO PROIEKTUAREN IDAZKETA-ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

1.- XEDEA

Baldintza Tekniko Partikularren Plegu honen xedea Hernaniko Lizeaga auzoko ur hornidura sarea berritzeko proiektuaren idazketa-zerbitzuaren enpresa esleipendunak bete beharrekoak zein diren zehaztea da.

2.- AURREKARIAK

Hernaniko Udalak dituen funtzio edo betebeharren artean udalerriko puntu ezberdinetara edateko ura hornitzea dago.

Udalerriko ur hornidura horren zati handiena Añarbeko sistemaren Orkolagako ur biltegitik egiten da. Orkolagako biltegia +64.00 kotan dago eta 6.300m3-ko edukiera dauka. Biltegi horren eguneko batazbesteko kontsumoa 4.200m3 ingurukoa da.

Orkolagako biltegitik hornitzen den uraren bi heren gutxi gorabehera zuzenean grabitatez banatzen da, baina Orkolagako biltegiaren kota ez da nahikoa udalerriaren zati handi bati hornitzeko. Hori dela eta, Orkolagako biltegitik hornitutako uraren gainontzeko herena Txantxilako ponpaketatik igarotzen da Santa Barbarako biltegira ponpatua izateko. Santa Barbarako biltegia kaskoaren mendebaldean dago +97,00 kotan eta 1.100m3-ko edukiera dauka.

Santa Barbarako ur biltegitik, batetik, udalerriaren eremu garaietara grabitatez eta, bestetik, hura baina garaiago dauden Marrakako eta Ermitako biltegietara hornitzen da ura.

Santa Barbarako biltegitik hornitzen den udal sarearen hedadura handia da, eta material eta adin ezberdinetako hodiek osatzen dute, denboran zehar garatu izanaren ondorioz. Sare horren zati handi batek antzinatasun handia dauka eta hainbat matxura eman dira azken urteetan, bereziki Lizeaga auzoan; inguruan kalteak sortu dira eta erabiltzaileei eragin diete. Hori dela eta, Lizeaga auzoko ur hornidura sarea lehenabilehen berritzea beharrezkoa da.

3.- LANEN DESKRIBAPENA

Proiektuan zehaztu beharreko lanen helburu nagusia Hernaniko Lizeaga auzoko ur hornidura sarea berritzea da.

Lehenik eta behin, Hernaniko Udalak emandako ur hornidura sarearen informazioa sakon aztertu beharko da. Informazio horretatik abiatuta, sare osoaren xehetasunezko altxaketa egingo da. Horrela, dagoen informazioa zuzendu eta osatu ahal izango da beharrezkoa den puntu guztietan.

Lehenengo lan honetarako, dagoen informaziotik edo bestelako teknika ez suntsigarrien bitartez gaur egungo sarea nolakoa den ondorioztatu ezin denean, udaleko brigadari katak egiteko eskatuko zaio. Egin beharreko katen kokapena eta kopurua proportzionala izango da eta sarearen erabiltzaileei sortutako eragina ahalik eta txikiena izango da. Kata horiek proiektuaren idazleek gainbegiratu beharko dituzte.

Xehetasunezko altxaketa egin ondoren proiektuaren hurrengo fasera pasa ahal izango da. Fase honetan sarearen berritze lanak bai ohiko teknikak erabiliz eta bai ez-ohiko zangarik gabeko teknikak erabiliz egin daitezkeen aztertuko da.

Zerbitzuaren ardura izango duten udal teknikariek adieraziko diete proiektugileei proiektua zatitzea beharrezkoa izango den edo ez, lanak hainbat urte edo fasetan eraiki behar izatea aurreikusten bada. Horretarako, aldez aurretik egin beharreko lan guztien aurrekontuaren estimazio bat aurkeztu beharko dute proiektugileek, bai osotasunean eta bai zatituta.

Proiektuan jaso beharrekoak argitu ondoren, proiektuaren idazketa egingo da. Gutxienez honako dokumentu hauek izango ditu:

1. Memoria eta eranskinak
2. Planoak
3. Baldintza Tekniko Partikularren Plegua
4. Aurrekontua

Proiektuan sarearen berritzea osotasunean egin ahal izateko egin beharreko lan guztiak zehaztuko dira, hau da, hodi berrien kalkuluak eta dimensionamendua, haien ezaugarri teknikoak zehaztuko dira, egin beharreko obra zibila zehaztuko da, lanek hirugarrengoengan izan dezaketen eragina, eragindakoen birjartzeak, etab.

Proiektua idaztean arreta berezia jarriko zaie ondorengo atal edo gaiei:

- Trafikoarengan izango duen eragina.
- Bizilagunengan eta sarearen abonatuengan izango duen eragina.
- Zerbitzuengan izango duen eragina eta zerbitzuen arteko koordinazioa.
- Partzelak, jabetzak eta desjabetzen kostuaren balorazioa.

4.- PROIEKTUAREN FORMATUA

Proiektua formatu digitalean helaraziko da:

- Proiektua bere osotasunean PDF formatuan.
- Gainera:
  - Planoak DWG formatuan.
  - Aurrekontua BC3 formatuan.

5.- PROIEKTUA AURKEZTEKO EPEA

Kontratua sinatzen denetik 6 hilabeteko gehienezko epea izango dute proiektua aurkezteko.

6.- AURREKONTUA

Zerbitzuaren lizitazio aurrekontua guztira 21.780€ izango da (18.000€ + 3.780€ IVA).

7.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Enpresa lizitatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztuko dute:

- Eskaintza ekonomikoa.

- Memoria teknikoa; gutxienez, honakoak azalduko dira:

  - Eremuaren ezagutza eta idatzi beharreko proiektuaren inguruan nabarmentzekoak zein diren (zailtasunak, eraginak, proposamenak, etab).

  - Eraikiko den sektorizazioaren mantenu eta artapenari buruz nabarmentzekoak zein diren.

  - Proiektuaren idazketan parte hartuko duen taldearen aurrekariak eta antzeko lanetan duen esperientzia. Idatzitako antzeko proiektuen zerrenda eta agiriak.

- Gainera, honako hobekuntza hauek baloratuko dira, egindako eskaintza ekonomikoak haien kostua barne hartzen dituelarik:

  - Kontratuan sortutako dokumentazio guztia (altxaketa topografikoa, txostenak, planoak, saioen emaitzak, proiektuaren aldaketak edo eguneraketak, etab) gorde eta kudeatzeko dokumentuen kudeaketa sistema ezartzeko konpromisoa. Sistema aplikazio informatiko online bitartekoa izango da, eta Udalak izendatutako teknikariei sarrera emango zaie sistemara.

Hernanin, 2022ko azaroaren 7an

ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F

Digitalki sinatuta norengandik: ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F
Data: 2022.11.07 16:19:30 +01'00'

Udal Zerbitzuak Saileko Arduraduna